

GAIZERRENDA:

Debako Garapen Jasangarrirako Ekintza Plana (2013-2016). Lehen hiri parte-hartzerako aurkezpena.

<u>DEIALDIA</u>	<u>DEITUTAKOKIDEAK</u>	BAI	EZ
<u>DATA:</u> 13/11/2013	1. Miren A. Esnal Laskibar	X	
<u>HASIERA:</u> 18:30	2. Jose M ^a Altzibar Gantxegi	X	
<u>AMAIERA:</u> 20.30	3. Cesar del Olmo Martinez	X	
<u>TOKIA:</u> Debako Udaletxea. (Batzar Aretoa)	4. Jose Alberto Retolaza Gonzalez	X	
	5. Iñaki Arteaga Iñarra	X	
	6. Jesus Tambo San Miguel	X	
	7. Mikel Campo Argote	X	
	8. Jose Mari Izaga Reiner	X	
	9. Carmelo Urdangarin Altuna	X	
	10. Silvia Gil	X	
	11. Nekane Arakistain	X	
	12. Juan Antonio Izagirre	X	
	13. Jasone Galdona	X	
	14. Mixel Aranberri	X	
	15. Alberto Gordoia Askasibar	X	
	16. Naiara Malave Garrido	X	
	17. Erroka Arantzamendi Altzibar	X	
	18. Mainer Zubikarai	X	
	19. Maite Blanco	X	
	20. Esther Zarrabeitia (DEBEGESA)	X	
	21. Cristina Iturriagagoitia (DEBEGESA)	X	
	22. Aitziber Cortazar (DEBEGESA)	X	

LANDUTAKOGAIENLABURPENA:

Hiri-partaidetza bilerari hasiera ematen dio Mainer Zubikarai Debako alkateak. Ekintza Planaren helburuak zeintzuk diren azaltzen die bertaratutakoei.

Cristina Iturriagagoitiak hitza hartzen du eta power point bidezko aurkezpenarekin jarraitzen du. Debako Garapen Jasangarrirako Ekintza Planari buruzko informazioa luzatzen die gainontzeko partaideei eta faseak, metodologia, egutegia... deskribatzen ditu.

AMIA analisia aurkeztu aurretik Cristina Iturriagagoitiak ez eteteko eskatzen die gainontzekoei. Aurkezpen horren amaierarako utziko dira aportazio eta iritzi guztiak. Ondoren, bileraren bigarren faseari ekingo zaio, zeina bi taldetan gauzatuko den. AMIAren aurkezpena amaitzen da eta bertaratutakoei hitza ematen zaie nahi dituzten aportazioak egiteko.

Carmelo Urdangarinek ez du argi ikusten Debako Ekintza Planaren eta Itziar Auzo-Udal deklaratzeko prozesuaren arteko erlazioa. Itziarrek Ekintza Plan honen inguruko iritzia ematea garrantzitsua dela azpimarratzen du. Prozedimenduari dagokionez, hasiera batean behintzat, ados dago baina AMIA analisia alde aurretik aztertua izatea gustatuko litzaioke iritzi sendo bat eman ahal izateko. Debegekako kideek erantzuten diote lehen batzar hau "toma de contacto" bat dela eta inpresio orokorrak ezagutu nahi direla.

AMIAren inguruan aportazio edota iruzkin gehiago egin nahi izanez gero, 15 egun egongo direla aipatzen zaie partaideei. AMIA analisi hori udalaren web orrian zintzilikatuko da eta interesatuak dauden guztiei e-mail bidez ere helaraziko zaie. Horrez gain, udaletxean bertan ere kopiak eskuratu ahal izango dira nahi izanez gero.

Alberto Gordoak, Agenda 21eko Ekintza Planaren parte hartu zuenez, metodologikoki prozesua ezaguna egiten zaiola komentatzen du. Prozesu horretako ondorioak zein neurritan kontutan izan diren jakin nahi du. Esaten du ez duela Tokiko Ekintza Planaren aurrerapen mailari buruzko informaziorik jaso.

Aitziber Cortazarrek erantzuten dio urtero, Gipuzkoako Foru Aldundiak erraztutako zerbitzu baten bitartez, Plana ebaluatzen dela eta Plan horren emaitzak aurkezteko bilera bat ospatzen dela. Diagnostikoaren elaborazioan Planaren ondorio nagusi hauek kontutan izan dira:

- Aurreko Planaren exekuzio maila %62koa da, EAeko batz bestekoaren antzekoa (%62,5).
- Planaren Garapenaren lidergoa Debako Udaleko Ingurumen Departamentuaren aldetik. Ingurumenerako joera duen Ekintza Plana 85 ekintzarekin, Planaren %46a baino gehiago.

Miren Esnalek, batzarraren parte-hartze urria dela eta, zalantzan jartzen du planak herri mailan izan dezakeen ordezkagarritasuna.

Aitziber Cortazarrek hitza hartzen du eta bileraren bigarren zatia metodologiaren nondik norakoak azaltzen ditu. Power point aurkezpenarekin esandakoarekin betez, bi talde egiten dira.

Taldeetan egindako partaidetza amaitu ostean, Cristina Iturriagagoitiak berriz ere komunikazio-kanalak aportazio

gehiago egiteko zabalduak egongo direla aipatzen du. Eman beharreko hurrengo urratsak zeintzuk diren azaltzen du eta bertaratutakoei eskerrak ematen dizkie. Maider Zubikarai alkateak ere euren parte-hartzea eskertzen du eta hurrengo deialdien berri ematen du.

OHARRA: Akta honen eranskin moduan, bi taldeek egindako aportazioen emaitzak biltzen dira.

Honek onartua:



Maider Zubikarai Beristain
Debako Alkatea